

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketari

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeko espedienteari alegaziorik egin ez zaionez gero, ordenantzaren testu kontsolidatua argitaratu egiten da indarrean jartzeko.

Erreferentziako ordenantzan proposatzen da espedienteen hirigintza izapideetarako tarifei dagokien paragrafoa aldatzea (6.1. eranskineko 2. puntua, tarifak): fotokopiak eta antzekoak egitea, faxak bidaltzea/jasotzea eta espedienteak izapidetzea.

Gaur egun, paragrafo horrek hau ezartzen du:

“- Hirigintza espedienteak izapidetzeagatik: aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 1 (gutxienez, 10 euro). Espedientea Udalak eskatuta hasten bada, salaketa edo hirigintza ikuskapenen baten ondorioz, zenbatetsitako aurrekontuaren ehuneko 5eko tasa ordainduko da (gutxienez 50 euro).

Eta aldaketa egin ondoren, honela geratuko litzateke:

“- Hirigintza espedienteak izapidetzeagatik: obra txikietan aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 0,20 eta obra handietan aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 0,30” (gutxienez 10 euro). Espedientea udalaren eskariz hasten bada, salaketa edo hirigintza ikuskaritza bidez, kalkulaturako aurrekontuaren ehuneko 5 (gutxienez, 50 euro) izango da tasa “

Santikurutze Kanpezu, 2021eko uztailaren 13a

Alkatea
IBERNALO BASTERRA TXASKO